2. mailako Hirigintza: sarrera

HIRIAREN HAZKUNDE-FORMEN AZTERKETA

8. ariketa

Aurreko ariketetako herrian dauden hazkunde-forma ezberdinak taldeka detektatu, honako 4 planoak eginez:

	FORMATUA	EDUKIA
1	- Eskala: **1:5.000** (herriaren arabera moldagarria) - Tamaina: **A-1** - Formatoak: **Cd**an (pdf edo jpg) eta **paperean** (A-4 formatura tolestuta)	- Hiriaren hazkunde-forma bakoitzaren eremua mugatu perimetro beltz baten bidez (espazio publikoa barne). - Hiriaren hazkunde-forma bakoitzaren perimetroaren barnealdea kolore baten bidez ezberdindu (espazio publikoa barne). - Legenda bat ezarri koloreak azalduz. - Eremu bakoitzaren azalera hektareatan adierazi (zatituak egotekotan, bakoitzarena adierazi).
2	- Eskala orokorra: **1:2.000** (herriaren arabera moldagarria) - Tamaina: **A-1** - Formatoak: **Cd**an (pdf edo jpg) eta **paperean** (A-4 formatura tolestuta)	- Hiriaren hazkunde-forma bakoitzaren partzela eraikiak (eraikinak soilik) adierazi lehengo kolore-irizpide berdinarekin. - Espazio ez eraikien artean publikoak eta pribatuak bereiztu (publikoak, zuriz utzi; partzelatuak, kolore horiz). - Eraikin publiko nagusiak (dorretxeak, elizak, udaletxea, hiri-jauregiak…) bereiztu haien behe-oinplanoa adieraziz (bestela, beste modu baten bidez). Eraikinen izenak adierazi. - Legenda bat ezarri koloreak azalduz. - Hiriaren hazkunde-forma bakoitzeko bi eraikin-tiporen eredua (herrikoa eta herritik kanpokoa), 1:200 eskalan (edo antzerakoa).
3	- Berdin	- Indarrean dagoen udal-plangintzako klasifikazioa (udalerri osoa ikus dadila; legenda ondo ikus dadila).
4	- Berdin	- Indarrean dagoen udal-plangintzako kalifikazio orokorra (hirigunean zentratu daiteke; legenda ondo ikus dadila).

Hurrengo hazkunde-formak bereiztu beharko dira (egotekotan), jarraian adierazten diren koloreen bidez (edo antzerakoak; ziurtatu paperean ondo bereizten direla):

HAZKUNDE-FORMAK	KOLORE-FAMILIAK
- Dorretxea (ez da hazkunde-forma bat, baina bereiztu itzazue) - Hiri-jauregia (ez da hazkunde-forma bat, baina bereiztu itzazue) - Erdi Aroko hiribildua - Burgua - Errebala	Marroi ezberdinak
- Baserri isolatua (ez da hazkunde-forma bat, baina bereiztu itzazue, monumentu gisa izendatuta egotekotan) - Baserri multzoa: Elizatea	Gris ezberdinak
- XIX. mendeko zabalgune burgesak (etxe-irletan oinarrituta) - 1960. urtera arteko lorategi-hiriak - 1960. urtera arteko langile-auzoak	Gorri ezberdinak
- Industria: 1960. urtera artekoa, eta 1960tik gaur egun arte egindakoa	More ezberdinak
- 60-80 hamarkadetako garapenkeria-poligonoak (bloke irekietan eta dorreetan oinarrituta) - XX. mendeko zabalguneak (etxe-irletan oinarrituta) - Azken hamarkadetako familiabakarreko etxebizitzak	Laranja ezberdinak

Otsailaren 28ko eskolaren hasieran emango da bukatuta.

Donostian, 2011ko otsailaren 7an
Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño